



POP ETA ROCK DOINUAK BONBERENEAN

Manent eta Seiren taldeak ariko dira etzi, eta Captain Nemo eta Coll Circus, berriz, larunbatean >3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-01-21

VIIURTEA 1.608.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

LORDI SARALEGI 'ERRAZU' SAIOAREN ZUZENDARIA

«Saioan gai desberdinak jorratzen ditugu euskaren ikuspegitik»

IBARRA ETB-1 kateko 'Errazu' saioko zuzendaria da; bi saio egin dituzte, eta, oraingoz, erantzun ona jaso dute

ARDATZA «Tokian tokiko euskara jasotzen dugu hitzak, esamoldeak eta esaera zaharrak azpimarratuz», dio 6

'Mi primera vez'
antzezlana
izango da
ikusgai, etzi

TOLOSA Leidorren eskainiko dute, 20:30ean; sarrerak agortzeaz daude jada 2

«Urte arraroa»
izan du Danena
Olaederrak

ZIZURKIL-VILLABONA Hasiera «kaxkarra», baina urtea ondo bukatu duela azaldu dute 4

Lakuntza
hirugarren,
azken partida
irabazi ostean 7



Leaburun Oinargi dantza taldearen saioa izan zen mezaren ondoren. N. URBIZU

SAN SEBASTIAN EGUN ALAIA

TOLOSALDEA Berastegin, Leaburun eta Orendainen, urtero bezala, San Sebastian Eguna ospatu zuten atzo; dantzariak eta txistularien doinuek ez zuten hutsik egin 5



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako OSKI arropa dendan
Leitzako TORREA tabernan eta HITZaren Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...



Kultura » 'Mi primera vez' antzezlanaren ikusgai izango da; ikusmin handia sortu du ekitaldiak eta sarrerak agortzeaz daude jada.

Lehen sexu esperientziaz luze eta zabal hitz egingo dute etzi, Leidorren

ERREDAKZIOA

Trasgo Producciones eta El Relo Producciones taldeek *Mi Primera Vez* antzezlanaren gaztelarazko emanaldia eskainiko dute etzi Leidorren. 20:30ean hasiko da saioa eta sortu duen ikusminaren adierazle da, dagoeneko sarrerak agortzeaz daudela. Hala ere, interesatuek oraindik ere eskura ditzakete Servikutxa, Telekutxa eta www.kutxa.net-en, 15 euroren truke.

Mundu zabaleko pertsona guztiak komunean duten gauzen artean lehenengo sexu esperientzia dago. Oso gutxitan hitz egiten da gai honetaz, orain arte. *Mi primera vez* generazio berriko ikuskizuna da, bertan lau antzezleen eskutik benetako pertsonak idatzi dituzten lehenengo sexu esperientziak azaltzen direlarik.

1991. urtean, blogak sortu baino

» ZENBAIT DATU

- **Izenburua.** *Mi primera vez.*
- **Egilea.** Ken Davenport.
- **Zuzendaria.** Gabriel Olivares.
- **Aktoreak.** Miren Iburguren (Escenas de matrimonio, Javier Martín (Caiga Quien Caiga), Bart Santana (Física o química, Al salir de clase, Policías...) eta Mar Abascal.
- **Ekizpena.** Gabriel Olivares.
- **Tokia.** Leidor aretoa.
- **Ordua.** 20:30.
- **Sarrera.** 15 euro.



Lehendabiziko sexu harremanen inguruan mintzatuko dira Bart Santana, Miren Iburguren, Javier Martín eta Mar Abascal. HITZA

hamarkada bat lehenago, zure lehenengo esperientzia anonimoki kontatzeko aukera eskaintzen zuen webgunebatu sortu zen. Web-ak arrakasta itzela izan zuen, mundu osotik idatzitako 40.000 bat istorio jasozituelarik: dibertigarriak, barregarriak, heterosexuak, homosexualak... Ken Davenport-ek,

Broadwayko ekoi zerik garrantzitsuenak, web honetan oinarritua *My first time* antzezlanaren idazten du, arrakasta handiko obra. *Mi Primera Vez* obraren sortzaileek www.cuentametuprimavez.com webgunean azaltzen diren testigantza eta dokumentu berriak ere kontuan izan dituzte.

Tartean aktore euskaldun bat Etzi Leidorren aurkeztuko den antzerkian protagonistetako bat Miren Iburguren donostiarra izango da. 28 urteko aktore honek ETB-1eko Goenkale telesailaren egin zituen bere lehendabiziko lanak, Maria Luisa pertsonaiaren neska bezala.

Goenkaletik, Espainiako telebista kate batera egin zuen jauzi, eta ordutik, hainbat telesailetan aritu da. Dena den, ospetsu, Sóniaren paperean egin zen, Tele 5eko *Escenas de matrimonio* saioan. Kate berean, orain, Carmen Machiren lekua hartuko du *Aída* telesail komikoan.

Batzokira pintura gorria eta horia jaurti dute ezezagun batzuek

Erasoa » Honekin, EAJ-PNV alderdiak larunbatean, Azpeitian izandako jarrera salatu nahi izan dute egileek.

ERREDAKZIOA

Larunbat gauean ezezagun batzuek Tolosako Batzokiaren aurka pintura gorria eta horia jaurti zuten. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren erredakziora helarazitako ohar baten bitartez, erasoaren egileek adierazi dute, «ekintza honen bitartez



Pintura gorri eta horiarekin zikindu dituzte Batzokiaren hormak. E. EZEIZA

EAJ-PNV alderdiaren jarrera espaiolista» salatu nahi izan dutela, eta bereziki «egun horretan bertan Azpeitian burutu zen alkatetza lapurretan».

Erasotzaileen iritziz, «hauteskundeetan lortu ez zutena, indarkeriaren eztabaida partidista erabiliz lortu dute». Gaineratzen dute

ere, EAJ alderdiak Alderdien Lege propioa sortu duela, ezker abertzalea kriminalizatu eta alkatetzatik botatzeko. Honenbestez, argi adierazi nahi diote, Eusko Alderdi Jeltzaleari, «Euskal Herriari bizkar eman eta Espainiaren eskutik jarraitzen duen bitartean» aurrean izango direla.

Inauteriak antolatzeke bilera izango da gaur



Ferialekura eraman beharreko plataformak identifikatuko dituzte gaur. I.T.

ERREDAKZIOA

Jai Batzordeak bilera deitu dugur arratsalderako. Bertan, Inauterietan ospatzen den danborradaren inguruan mintzatuko dira. Batzorra 19:00etan izango da, Tolosako Kultur Etxean. Gaurkoa bileran parte hartzeko deia egiten diete Jai Batzordekoek, danborradan parte hartzen duten elkarte eta talde guztiak. Aurtengo danborradaren

aldaketa nagusiak eztabaidatuko dira bertan.

Bestalde, plataformei dagokionean, oraindik gelditzen dira ize-narik gabeko plataforma txikiak Amaro zoko papelerako kanpan. Ferialekura eraman beharrekoak zeintzuk diren jakiteko plataforman jabeek kanpara joan behar dute gaur 17:30 inguruan, norbera-rena identifikatzeko.

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nalanda etorb. 11 behean - TOLOSA
Mag.: 678 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

Pop doinuetatik rock-era bitarteko aukera, asteburuan Bonberenean

Tolosa » Manent eta Seiren taldeak ariko dira etzi, eta Captain Nemo eta Coll Circus, berriz, larunbatean.

ERREDAKZIOA

Musikaz beteriko asteburua presatu dute, ohiko moduan, Bonberenean. Etzi bi zuzeneko emanaldiz gozatzeko aukera izango da, Manent eta Seiren taldeena, eta larunbatean, beste bi talde igoko dira Bonbereneako taula gainera, Captain Nemo eta Coll Circus, hain zuzen ere. 22:30ean hasiko dira kontzertuak bi egunetan.

Pop doinuak eta folk kutsua

Seiren taldea Bizkaitik dator, eta *Pertsona baten bila* diska berria aurkeztuko dute. Disko «zintzo eta hurbila» dela diote egileek. Babel musik disketxearen eskutik ateratu du taldeak. Jokin Lacalle abeslari eta biolinistak dio, «umerik zailenetan ateratzen zaizkigun sentimenduei buruzko abestiak» egin dituztela. «Adin askotako jendeak, gazteak eta nagusiak, esan digu bat egiten duela ematen ditugun mezuekin».

Pop doinuak dira nagusi Seiren taldearen lehen lanean. Baina diskoak «folk kutsu nabarmena» duela dio Onintze Garcia abeslari eta gitarristak. Hala eta guztiz ez da folk tradizionala: «Pop abestiak dira, zeltar doinuez apainduta». 2005ean sortu zuten Seiren taldea Lacallek eta Garciak. Abestiak konposatzeari ekin zioten, eta behar araber, musikariak biltzeari. Seikotea osatu zuten azkenean. Bainajada zazpi dira, Aritz Carballo whistleak joko baititu aurrerantzean. Diskoa honako musikari hauek grabatu dute: Ales Larrazabalek (pianoa jo du), Carlos Costak (baxua), Ruben Sastre (bateria), Andoni Arrizabalagak (gitarra) eta Lacallek eta Garciak. Arrizabalak, ordea, taldea utzi beharra izan zuen, eta Txaber Larrazabal da bere ordezkoa.

Erritmo elektronikoak

Etzi ariko den beste musika taldea Manent izango da, eta euren erritmo elektronikoak zabalduko dituzte Bonberenean. Bost tolosarrak osatutako musika talde honek bere lehen diskoa kaleratu zuen iaz Karl Watermarken laguntzarekin. Run Down Entertainment zigilurekin kaleratutako *Txuribeltzeko amodioa* lanean maitasunaren inguruan mintzatzen diren hainbat kantu bildu dituzte.

Taldea ondorengo hauek osatzen dute: Denis Ruiz (ahotsa eta gitarra akustikoa), Tadeo Urkola (teklatuak), Iñigo (Iñaki) Agirre (gitarra akustikoa eta elektrikoak),



Goian, Manent taldeko kideak, etzi izango dira Bonberenean. Erdian, Seiren taldea, eta behean, Captain Nemo. HITZA

Juanjo Falcon (baxu elektrikoak) eta Fermin Etxeberria (bateria).

Country musika egiten hasi zen Denis Ruiz, baina pixkanaka taldeak pop komertzialera jo zuen, euskaraz eta gaztelaniazko abestiek. Hala, duela 4 urte inguru sortu zen taldea. «Nik ere, lehenagotik aurrera eraman nahi nuen proiektu bat neukan. Ondoren, Tadeorekin harremana nuen, eta elkarrekin zerbaitegiteko asmoa ateratu zen», azaltzen du Ruizek. Bera da, hain zuzen ere, letrak idazteaz nahiz musika konposatzeaz arduratzen dena. Erromeria taldeetan edota dantzalekuetan DJ modura, guztiek izan dute lotura musikarekin.

Captain Nemoren rock doinuak

Larunbatean, bestalde, Captain Nemo taldea igoko da taula gainera. Donostiarrak dira, eta *I280 Euskal Hiria* izeneko disko berria aur-

keztuko dute. 2000ko hamarkadan Donostian sortutako Rock taldea da. Bertako partaideak Eskorriatza, Karkaxa, Heriotza eta Fist Fucking taldeetan aritutakoak dira.

2004ean, Lisabö taldeko Karlos Osinaga teknikari zutela, beraien lehen diskoa kaleratu zuten, *Korrontearen kontra urpekari bat*. Metak disketxearekin. 2005ean, Baionako Gure Irratiaren aldeko CD bilduma batean, *21 aulkia* abestia argitaratu zuten. 2007an, taldeak berak ekoiztutako *I280 Euskal Hiria* lana kaleratu zuten. Bertan, Jotakie taldearen abesti baten bertsioa egiteaz gain, beste talde batzuetako partaideen laguntza ere jaso zuen, tartean Nuevotercio Catolicoko taldeko Arturo Ibañezena.

Leku (ahotsa), Txarly (bateria), Errasti (gitarra), Norbert (gitarra)

eta Landerrek (baxua) osatzen dute Captain Nemo taldea.

Rock-and-roll serioa

Coll Circus taldea, berriz, Arrasatetik dator, eta *Spend all you've got* lan berriarekin etorriko dira. 2007. urteko udan sortu zen rock-and-rolla modu serioan lantzeko asmoarekin. Partaideak urteetan zehar eskarmetua hartutako musikariak dira, musika talde ezberdinetan arituak: Iñigo (baxujolea, Ekon eta Heriotza taldeak), Dr. Stone (gitarra, Kañeria 13 eta Jukebox taldeak), Yagomoon (gitarra, Ekon taldea), Jul (bateria, Arkada Social eta Jukebox taldeak) eta Txarli (ahotsa, Spezial Guest taldea).

2008ko atarian Elkar estudioan sartu ziren lau kantu grabatzaera Jean Phocasen laguntzarekin. Eta hori da pasa den udazkenean kaleratu zuten lana, EP Biniloan.

Laburrak

Igeriketa Taldeko urteko batzarra otsailaren 5ean

TOLOSA • Tolosaldea Igeriketa Kiroi Taldeak bazkide guztiak deitzen ditu urteko batzarrean parte hartzera. Hau Usabal kiroldegian izango da otsailaren 5ean, 19:30ean lehendabiziko deialdian, eta 19:30ean bigarrenean.

Hilaren 31ra arte janaria emateko aukera izango da

GIZARTEA • Urtero bezala, martxan da Sahararen aldeko Euskal Karabana, *Piztu Itxaropena* lelopean. Eskualdean, Tolosaldea Sahararekin Sahara bizil elkarte ari da aurrera eramaten janari bilketa. Arroza, le-kaleak, pasta, hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak dira aurtan utzi beharrekoak, eta eskualdeko udaletxe eta supermerkatu gehienetan jarri dute horretarako aukera.

Adingabeen bizipenak gertutik ezagutzeko

TOLOSA • *Geureak ere badira adingabe horiek*, SOS Arrazakeriak antolatutako erakusketa dago ikusgai Errota Haur Liburutegian, hilaren 28ra arte. Pasa den astean Kultur Etxean izan zen, eta han ostiralean, hilaren 16an egin zuten bisita gidatua etorriko adingabeekin, euren bizipenak jendaurrean azaldu zituztelarik. Bada, aste honetan ere izango da bisita gidatua.

Hauek aste osoan zehar egingo dituzte eskualdeko ikastetxeetako gaztetxoekin, eta ostiralean, hilaren 23an izango da nahi duen herriar guztientzat.

Aiz Orratz elkarte argazki zaharrak biltzen ari da

TOLOSA • Veleta-Aiz Orratz elkarteak 75 urte betetzen ditu aurtan. Hori dela-eta argazki zahar eta berrien erakusketa ari da prestatzen eta horretarako materiala biltzen ari dira. Hala, bazkideei, bazkide ohieei edota zerbaitei dutenei deia luzatu diete, duten materiala elkartera eramateko eskatuz. Informazio gehiago nahi duenak 655 73 87 39 telefono zenbakira deitu ahaliko du.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Tolosa.** Etxebizitza alokairuan Tolosan. Behean pisua gehi txapitula. Berogailuarekin. 550 euro hilabetean. Interesa dutenek deitu 669 93 99 43 telefono zenbakira.

LANA

■ **Iurgina.** Pertsona bat behar da iturgin lanetarako. Interesa duenak 656 41 68 08 telefono zenbakira deitu beharko du.

Batis Kortajarena: «Nahiko arraroa izan da Danena-Olaederraren urtea»

Zizurkil-Villabona » Urte hasiera «kaxkarra» izan zela, baina gero urtea «oso ondo» bukatu dutela dio taldeko prestatzaileak.

IMANOL GARCIA

«Iazko urtea nahiko arraroa izan da», azaldu du Batis Kortajarena Danena-Olaederra halterofilia taldeko prestatzaileak aurreko urteko balantzea egiterakoan. «Hasiera kaxkarra izan zen, taldea nahiko galduta ikusi nuen», azaldu du. Ekainean Jon Tecedor taldeidea hil zen trafikoi istripuan. Horren ondoren beste egoera bat sumatu zen taldean. «Jendea beste gogo batekin hasi zen berriz eta beste bultzakada bat ematea lortu genuen eta urtea bukatu genuen oso ondo».

Danena-Olaederrak lortutako zenbakiak nabarmentzekoak dira. Guztira 387 saio egin dituzte pultsulariek, txapelketak eta torneoak kontuan hartuta. Horietaik 67 Gipuzkoako Txapelketan izan dira, 60 Euskadikoan, 48 Espainiakoan, 1 Europakoan, 157 Espainiako Ligan eta 54 hainbat torneotan. Saikapei dagokionez eta lehenengo hiru postuak kontuan hartuta, Gipuzkoako Txapelketan 37 txapel, 19 bigarren postu eta 7 hirugarren postu lortu dituzte. Euskadikoan 34 txapel, 17 bigarren postu eta 17 hirugarren postu. Espainiakoan 6 txapel, 11 bigarren postu eta 9 hirugarren postu. Europako mailan Igor Sasiainek 17 urte azpikoetan zortzigarren egin zuen.

Espainiako Kluben Arteko txapelketan, lorpena

Horrez gain, hainbat txapelketatan emaitza oso onak lortu dituzte, bai talde bezala bai bakarkakoan. Nabarmentzekoa da ere Espainiako Kluben Arteko Txapelketan lortutakoa, «inoiz lortu ez dena», Kortajarenaren hitzetan. Bi talde joan ziren eta bigarren eta bosgarren postuak lortu zituzten. «A taldearekin esperantzak bagenituen aurreko hiruen artean sartzeko», dio Kortajarenak, «baina biga-



Danena-Olaederrako pultsulari bat entrenamendua egiten Olaederra kiroldegian duten gimnasioan. I. GARCIA

rren taldea aurreko zortzi postuetan sartzeko asmoarekin joan eta azken unera arte laugarren postuan izan zen. Oso ondo ibili zen», dio prestatzaileak. Horri guztiari gaineratu behar zaio Gipuzkoako bost marka eta EAeko lau marka hobetu dituztela.

Egun 38 pultsulari daude taldean. Alebin mailan 3 daude, infantil mailan 7, kadete mailan 6, jubeniletan 5, juniorretan 3 eta seniorretan 14. Gehienak Zizurkil eta Villabonakoak dira.

Kortajarena ez dago, baina, oso gustura taldeak daraman martxarekin. «Oraingo gazte jendeak, eta azken boladan ari naiz konturatzeko, sakrifizio gutxi nahi dute. Bakarko kirolak oso gogorak dira. Eta hori ez da gertatzen halterofilian bakarrik, atletismoan ere gertatzen da, entrenatzaile bezala aritzen den ezagun batek esaten didanez».

Prestatzaileak uste du garaiak aldatzen ari direla eta gazteek ez dutela konpromisorik hartu nahi: «Konpromisioa serio xamarra jarzaten denean atzera egiten dute. Jolasten eta jolasten Espainiako txapel-

duna izatea lortzen dute eta ez diote garrantzia handirik ematen. Baina hori lortzen duenean hurrengo pausoa gehiago kostatzen da. Espainiako txapelketa lortuta eta Europako mailako txapelketetara saikatzeko, puntuazio batzuk lortu behar dira. Planifikazioa jartzen diozu horretarako eta hori gogorra izaten da, oso gogorra. Eta begiratzeko dutenean, behera egiten dute eta ez dira konprometitzen».

Espainiako txapelketetan sei txapel lortzea ez dagola gaizki dio Kortajarenak. «Beste talde batzuk oso gustura egongo litzateke horrelako emaitzekin, baina beste urtetan gehiago lortu izan ditugu», dio. Gurasoen aldetik konpromiso gehiago eskatzen du. «Gurasoek ez diote garrantzi handirik ematen. Nahi dute haurra kirol bat egiten egotea, baina semea halterofilian ondo badabil eta gero esaten badu beste zerbait egin nahi duela, gurasoek ez diote esaten gutxienez urtebetez probatzeko, ez ibiltzeko orain gauza bat gero bestea egiten... Horiek ez dute sekula ezer egingo. Etxetik lagundu egin behar zaie».

Aurtengora begira

Talde bezala emaitza onak lortzean, hainbat torneoetatik gonbidapenak jasotzen dituzte. «Askotara ezin dugu joan. Bidaiek gure konturatu izaten baitira eta neuritu behar dugu gure aurrekontua», zehazten du.

Denbora asko sartzeko dute dio Kortajarenak. «Taldea bat dago mezei duena eta sakrifikatzen dena eta serio aritzen dena», dio. «Baina ez dago lehengo multzo hori. Hemen ohituta gaude 20 edo hogeitik gora lagun entrenatzen izateko eguneroko. Hori 14 edo 15 lagunetara

jaisten denean ematen du ez dagoela inor. Beste edozein gimnasioetan asko izango zen».

Dirudienek, egun taldeko kirolek arrakasta handiagoa dute. «Gazteak koadrilan sartzeko», azaltzen du Kortajarenak. «Hemen ere lehen funtzionatzeko zuten horrela. Koadrila bat sartzeko zuten gero haietatik batzuk gelditzen ziren. Gaztetxoak sar daitezela behar dugu hemen».

Aurtengorako egutegia oso bete dute. Jende gutxi badago egutegi guztia betetzeko, erre egiten dira pultsulariak. «Lehen hartzen genuen hilabeteko egutegia eta nolabait banatu egin genuen: bat txapelketa honetara, bestea horretara...», gogoratzen du Kortajarenak. Orain hori egitea zailagoa dute. Txapelketa ofizialekin bakarrik dagoeneko beteta dituzte hainbat asteburu. Espainiakora saikatzeko Euskadikoan parte hartu eta saikatu beharra dago. Eta Euskadikora saikatzeko, Gipuzkoakoan parte hartu beharra dago. Kate bat izaten da.

«Gimnasio batean behar dira 40 lagun txapelketa eta lehiaketa guztietara joateko», zehazten du prestatzaileak. «Guk 38 lizentzia ditugu, baina serio-serio gehienek 20 aritzen dira eta horrela oso zaila da egutegia betetzea». Kontua da urteetako lanaren ondorioz, dinamika hartu dutela hainbat probetan parte hartzeko eta orain kosta egiten da atzera egin eta zenbait probetan parte hartzeari uko egitea egin eta uztea. «Ateratzen bazara dinamika horretatik, gero kostatu egiten da berritua sartzeko. Hori lortzeko pixkanaka joan gara jendearekin eta gero lortu dugunean puntan egotea hori mantentzea zaila izaten da».

AHTren aurkako mendi martxa antolatu dute zundaketa guneetatik

ERREDAKZIOA

AHT Gelditu! Elkarlanak mendi martxa antolatu du Anoetan AHTren aurka datorren larunbatean, hilaren 24ean. Herriko zundaketa guneetatik barrena egingo dute. 10:00etan mendi martxaren hasiera izango da herriko plazatik abiatuko dira.

Martxaren ondoren bazkaria izango da mendizaleentzat gaztetxean. 19:00etan mendi martxari amaiera emateko ekitaldia egingo dute herriko plazan. Horren ondoren trikipoteo herrikoia egingo dute.

Zendu berri den Bereziartuari esker ona agertu dio Anoetako kristau elkarteak

ERREDAKZIOA

Iñaki Bereziartua frantziskotarra orain dela gutxi hil da eta pasatu berri den igandearen meza egin zuten bere oroimenez Anoetan. Herri horretako kristau elkarteak esker ona adierazi dio «egin duen lan guztiagatik». Gaineratu dutenez, «guretzat fede ibilidean lagungarri izan da, haur katekesiko gurasoekin, helduen ospakizunetan eta, nola ez, beharrean aurkitzen ginen guztietan hor izaten zen laguntza eskaintzeko».

Festa Batzordearen bilera deitu du Udalak biharko

ERREDAKZIOA

Iurako Udalak dei egin die Festa Batzordeko kide guztiei bihar, 19:00etan, udaletxean egingo den bilerara. Bertan pasatu berri diren Eguberrien balantzea egingo dute; otsailaren 13an egingo diren kalderoeraren inguruan hitz egin eta urteko kultur-ekitaldien egitaraua aztertuko dute. Udaletik azaltzen dutenez, festa batzordea irekia denek, kideren batek ezagutuko balu bertan parte hartzeko eta kultur ekintzak prestatzen laguntzeko gogo berezirik duen norbait (elkarte bateko kide ez izan arren) gonbidatu dezala bilerara joatera.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

San Sebastian Eguna txistu doinuek alaitu dute Orendainen eta Leaburun

Gizartea » Eguraldiari begira pasa zuen batek baino gehiagok atzo, baina espero baino hobea egin zuen, batez ere goizez.

NEREA URBIZU

Eguna urdina hasi zen Orendainen. San Sebastian Eguna ospatu zuten atzo bertan eta baita Berastegin eta Leaburun ere. Berastegin meza ospatu zuten parrokiaren, urtero egin ohi duten moduan.

Orendainen atzo plazan 10:45a aldera elkartu ziren herritarrak. Handik gutxira baselizarantz joan ziren Iñaki Letamendia eta Juanjo Agirre txistulari tolosarren atzetik. Kasu horretan *Goizeko izarra* obra jotzen joan ziren kalejiran.

Baselizan Joxi Eguzkitza apaiza zegoen zain eta baita beste herritar batzuk ere. Berandu iritsi zirenak ere baziren. Aurten, mezan organoaren laguntza ere izan dute eta ia guztia kantatu egin zuten.

Mezatic mahaira

Mezaren ondoren fandango-arinarinak jo zituzten txistulariek. Duela lau-bost urtera arte Alegiako German Intxausti txistularia jotzen zen jotzera, baina hura hiltzarekin, Tolosatik igotzen dira eguna alaitzera. Izan ere, ez dute bakarrik kalejiran jotzen, hamai-ketakoan ere udaletxean parte hartzen dute eta han ere jotzen dute. Elizaren kanpoaldean fandangoa dantzatzeko baten bat animatu zen...

Leaburun giro aparta

Eguraldi txarra iragarrita zegoen eta espero baino hobea izan zen; fresko, baina esan daiteke euririk ia ez zuela egin arratsaldean ere, San Sebastian Egunaren ospakizunaren garaian behintzat.

Atzo Leaburuko ermitan mezaren garaian haize hotz latza izan zen eta elizeko aurrealdetik haizea ez sartzeko, plastikoak ere bazeuden. Hala ere, haizeak asko eragin zituen plastikoak. Mezaren garaian, Xabier Zelaia txistulari tolosarrak *Agurra* jo zuen.



Leaburun mezaren ondoren dantza emanaldia egin zuten. Haizea zakar zebilen baina Oinargikoak fin aritu ziren. N.U.



Haize zakarra eta hotza ibili zen. N.U.



Orendainen goizez ospatu zuten San Sebastian. Irudian, kalejiran. N.U.

Juan Inazio Hartsuagarekin mitologiaren ariko dira igandeko ibilaldian

ERREDAKZIOA

Lizarrusti parketxeak igandeko ibilbide mitologiko bat antolatuta du. Jentilen akabera kondairari helduko diote kasu honetan; Jentilen galtzea kokatzen den bi tokitara hurbilduko dira, Leizadira eta Jentilarri trikuharrira, hain zuzen. 08:30ean Ataungo San Martin plazatik abiatuko dira eta 14:00etara buelta egitea espero dute.

Kondairak kontatzeaz gain, mitologia beste modu batera lantzeko asmoa dute, hau da, «kondairak aztertzean datza helburua, zergatiak bilatzean». Horretarako Juan Inazio Hartsuaga tolosarra izango da gidari. Berak egindako tesi argitzailea Munibe aldizkarian argitaratu zen 2004an *Jentilen Akabera* izenburupean.

Aralar gehiago ezagutzeko

Igande goizeko ibilaldia Aralarrek eskaintzen duen beste parajeetako batetan murgiltzeko aukera izango da: Lareoko urtegitik irten eta Sarastarri, Agauz, Errekabeltz, Jentilarri, Baiarrate eta berriro ere Lareora bitarteko bidea osatuko dute. Honela, Aralarrek eskaintzen duen baliabide aniztasunari buruz zerbait gehiago ikasi, ingurunea hobeto ulertu, Aralaroko parajeak ezagutu eta lagun giroan jendearen kezkak ezagutzeko aukera izaten da.

Ibilaldira joan nahi duenak izena eman beharko du 943 180 285 edo 690 055 892 telefono zenbakietara deituz. Oinetako eta arropa egokia, ura eta hamaiketako arimatea gomendatzen da.



Jentilarri Aralarako trikuharri ezagunenarikoa da. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

E **Elkarrizketa**

LORDI SARALEGI ▶ 'Errazu' saioko zuzendaria



ANDONI CANELLADA/ARGAZKI PRESS

«Euskararen bidez gai ezberdinak jorratzen ditugu»

Ibarra ▶ ETB1n emititzen den 'Errazu' saioko zuzendaria da Lordi Saralegi (Ibarra, 1974); bi saiok eskaini dituzte jada eta oraingoz erantzun ona jaso duela dio.

REBEKA CALVO

Kamara aurrean egotetik atzealdera egin du salto azkenaldian Lordi Saralegi ibartarrak. *Bierrepi-dean* eta *Ni hao Txina* telebista saiok zuzendu eta gero igande gauean ETB1k emititzen duen *Errazu* saiok zuzentzen ari da orain; arlo desberdinak euskararen ikuspuntutik modu entretenigarrian zabaldu nahi dituen programa. Lan talde txiki eta gazteak egiten duen saiok eta horien artean bada tolosar bat ere, Kike Amonarri. «Zuzendaria ez da ezer atzetik jende ona ez duen bitartean eta zentzu honetan oso lan talde ona osatu dugula esan behar», azaldu du ibartarrak.

Zein da 'Errazu' saioren ardatz nagusia?

Saioren funtsa euskararen ikuspegitik gai desberdinak jorratzea da. Tokian tokiko euskarajasotzen dugu hitzak, esamoldeak eta esakera zaharrak azpimarratzen. Euskararen entzuteaz gain euskarari jasotzea da gure lana. Askotan oharkabea entzunez pasatzen zaizkigun hitz eta esamolde asko azpimarratzen ditugu. Gai bat hartzen dugu horretarako (kirola, umeen izenak, osasungintza, inauteriak...) eta euskararen desberdinak erakusten saiatzen gara.

Funtzio didaktikoa daukala esan daiteke?

Ez, Funtzioa entretenitzea da batez ere, norbaitek hitzen bat edo

esamolderen bat jasotzen badu eta gogoa geratzen bazaio, ondo, baina gurea ez da funtzio didaktikoa betetzea. Bat-batean, ziztu batean, hitz egiten dugu eta ez dut uste inor dagoenik horiek denak barnereatzen dituenik, horregatik diot ez daukagula funtzio didaktikorik.

Iban Garate aurkezleak lana asko errazten dizue, ezta?

Horretan bete bete asmatu dugu; Ibanek oso euskarari aberatsa du, kamarara ondo ematen du, atsegina egiten da bera ikustea eta gainera, kontakizuna oso ondo eramaten du. Telebista ondo menperatzen du, eskarmentu handia du telebistan, eta nahiz eta gaztea izan 40-50 bat urteko kazetari edo aurkezle baten eskarmentua ere badu.

Nola diseinatu zenuten saioa, zientzuzko izen irizpideak?

Euskal Telebista izanik euskararen presentzia oso argi genuen eta aldi berean, jendea atsegina egin behar zitzaioela ere oso argi genuen. Euskararen presentzia izateko eskualde desberdinetako euskaldunak eduki nahi genituen eta gaiak aukeratzeko ere eskualde desberdinetan jokoa emango ligukenen gaiak aukeratzeko zen gakoetako bat. Bestalde, ibilbidea izango duten gaiak ere behar ditugu, ez du balio edozein gai, gero kalera atera eta horretaz hitz egiteko hiztunik ez badugu. Kaleko programa egin nahi genuen.

Euskararen desberdinak erakutsi nahi dituzue, hortaz.

Normalean gure komunikabideetan euskarari batuak du presentzia, eta izan behar du, baina behar bada, euskalkie ere izan dezakete presentzia zenbait kontutan. Argi dagoena da *Gaur Egun* batean denak ulertzeko moduko euskarari erabili behar dutela.

Zenbat saio ikusteko aukera izango da?

Bi emititu ditugu jada, sukaldaritza eskaintakoa lehena eta kirolaren inguruko bigarrena, eta hurrengoa eguraldiari eskainiko diogu. Guztira, hala ere, 13 saio emitituko ditugu eta jarraitzen badu datorren urtean izango litzateke, negu sasoiaren. Hori, hala ere, audientziak esango dute.

Zein izan da lehen bi saio hauek jasotako erantzuna?

Orain arte jendeak jarraitu du programa. ETB1k duen batez beste koan gaude, gutxi gorabehera. Baina egia da ere saioa hasiberria dela eta jende askok oraindik ez daki programa badagoela. Formata berria denez beste askok oraindik ez du barneratu, baina orokorrean kontentut gaude jasotako erantzunarekin.

Esatari papera atzean utzi duzu jada, 'Bertatik Bertara', 'Faktoria'... atzean utzi eta zuzendari lanetan ari zara azkenaldian ('Bierrepi-dean', 'Ni hao Txina'...). Zer nahiago duzu?

Erosagoa da, nolabait, atzealdeko lana. Ez daukazu aurpegia eman beharrik eta beraz kamarara aurreko urduritasun puntu hori ez daukazu. Egia da, hala ere, atzean egoteak beste mota bateko tentsio punturik ere sortzen duela. Kamara aurrean ateratzeko inbidiarik ez dut, behintzat, hori bere garaian egin nuen.

Zein da zure lana?

Gaiak aukeratu, erreportaia nola izango den bideratu... Horretarako, behin gaia aukeratuta, lan-taldea bildu eta gaia lantzen hasten gara, elkarrizketatuak aukeratu, deiak egin... Lan talde txikia gara eta zuzendaria ni banaiz ere guztion artean egiten dugu saioa. Oso lan talde ona dut atzean.

Denboraldi osoko partidarik okerrean jokatu zuten Burlatan

Ibarra ▶ 6-2 galdu zuten Lauburu taldeak Nafarroako taldearen aurka; asteburuan etxean jokatu dute.

ERREDAKZIOA

Egun txarrak ere izaten dira, dena gaizki ateratzen den horietakoak, eta Ibarra Lauburu areto futbol taldeak pasa den asteburu honetan izan zuen egun horietako bat. Nafarroako Burlatako taldeak baja ugari zituen eta ondorioz, ibartarre partida txukuna egitea espero zuten. Baina azkenean 6-2 galdu zuten eta okerrean denboraldi osoko partidarik okerrean jokatu zutela izan zen.

Txubel entrenatzaileak partida guztian zehar botatuko oihuek ez zuten ezertan lagundu, antza, izan ere, Ibarra jokalaririk bakoitzak bere aldetik egin zuen lan.

Burlatakoak ez ziren fin ibili, baina Lauburuok okerrago ibili ziren; balaio zelaieko alboetatik jokatzen zuten konturatu gabe, oinetakoan azpitik irristatzen zitzaizkien zeharka sartzen zituzten golak...

Burlatak ireki zuten markagailua

Eguneko lehen gola ere Burlatak sartu zuen, 19. minutuan lortu zuen. Lehen zatia horrela amaitu zen, 1-0, eta bigarrena; hasieran bi taldeak aritu ziren gaizki, paseak ez ziren iristen, baina azkenean Burlatak lortu zuen berriz ere eguneko bigarren gola sartzea.

Bigarren zatiko 28. minutuan lortu zuen, azkenean, Ibarra bere eguneko lehen gola sartzea, Jon Garmendia jokalaririk lortu zuen, zehazki. Bigarren gola, berriz, 38. minutuan iritsi zen, Victor Silvak sartu zuen. Ordurako, hala ere, Burlatak hiru gol sartuak zituen, seiatar iristeko ere ez zuten arazorik izan, 18 segundotan, zorte txarra dela-eta, Burlatak beste hiru gol sartu zizkien Ibarriari.

Aipatu behar da, era berean, Joseba Balerdi, Jon Garmendia, Victor Silva, Ion Ander Karrera eta Loitzun Sanz izan ziren zelaieratu ziren Ibarra lehen bost jokalaririk, nahiz eta David Pradosek, Ruben Etxartek eta Aitzol Oiarbidek ere izan zuten jokatzeko aukera. Ibarra golak Jon Garmendia eta Victor Silva jokalariek sartu zituzten.

Denboraldi osoko partidarik okerrean jokatu zuten Lauburuok Burlatan eta horregatik, orain, asteburu honetan etxean, Ibarra Belabietatik kiroldegian, jokatu duen partiduari begira daude. UPV Donostiaren aurkako derbia izango da eta honakoan lan txukunagoa egiten saiatuko direla diote.

L **Laburrak**

Inauteriak otsailaren 7, 14 eta 15ean izango dira

LIZARTZA ▶ Lizartzako inauteriak aurten otsailaren 7an, 14an eta 15ean izango dira. Era berean, ostiral honetan, hilak 23, hasiko dira inauteri dantzak entsegatzen. 20:30ean hasiko dira gimnasioan eta herriko dantzari guztiak bertaratzeko gonbita luzatzen diete.

Gariren urtebetetzea dela-eta argazkia gaur

IBARRA ▶ Gariren urtebetetzea dela-eta argazkia ateratzeko deialdia luzatu du herritar talde batek. Argazkia gaur aterako dute 19:00etan herriko plazan eta Gariren lagun eta senitartekoei bertaratzeko deia egiten diete.

D3Mren aldeko sinadura bilketa

POLITIKA ▶ Iruako udaletxean ostirala arte egongo dira D3Mren sinadurak biltzen 09:00etatik 14:30era. Hernalden 09:00etatik 15:00etara, eta gaur eta bihar 17:00etatik 20:00etara. Gaztelun, berriz, bihar arte egongo dira 08:00etatik 15:00etara.

T **Telefonoak**

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarra. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irua. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbolak: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Azken garaipenari esker hirugarren da Lakuntza sailkapen orokorrean

Villabona » Areto futboleko taldeak 5-6 irabazi zion Gernikako Beti Arin taldeari pasa den larunbatean.

ERREDAKZIOA

Transportes Lakuntzak garaipena eskuratuta bueltatu zen etxera Gernikatik, pasa den larunbatean, Beti Arin taldearen aurka jokaturako partidari. 5-6koarekin amaitu zuten partida Iñaki Otañoren mutilek.

Aurreko astetik bazekiten billabonatarrek neurketa zaila izango zela; hain zuzen ere, gol gehien sartu dituen taldea da Beti Arin.

Partida hasi baino lehen taldea oso kontzentratuta zegoen, eta barneraturik zuten defentsa ona burutu beharko zutelara, erasoan gogor eginez.

Hala, kontzentratu eta ezin hobeto hasi zen partida. Izan ere, lehen zatiak 11 segundo baino ez zituela, Lakuntzak lehen gola sartu zuen, Hautsiren, Anderren eta Ibonen arteko hiruki baten ondorioz. Hain zuzen, azken honek sartu zuen gola.

Hala, gol honek min handia egin zion aurkariari, eta euren animoak ere jaitsi zituen. Hautsik egoera honi ere probetxua ateratu zion eta bigarren gola egin zuen.

Lehen zatian kanpokoen joko ona nagusitu zen, etxekoek presentzia ia bakarria atezaina izan zelarik, geldialdi politak egin zituen. Atsedendira hiru minutu falta zirela Gernikako taldeak gola egin eta markagailuan 1-2koa jarri zuen. Gola jaso izanagatik Lakuntzak erasoan jarraitu zuen gogor,



Garaipen garrantzitsua lortu zuten Lakuntzakoek, partida zail batean. HITZA

Beti Arin	5
Lakuntza	6

■ **Lakuntza.** Aitor Jimenez, Ibon Aranzabe(1), Asier Aguinaga, Hautsi Izagirre(3), Ander Etxeberria(1) (bostekoa); Ander Nuñez, Sinoe Sanz (1), Oscar Urbano, Lander Uzkudun eta Juancar Sanchez ere jokatu zuten.

eta estrategiazko jokaldi baten ondorioz, Sinoek hirugarren gola egin zuen. Halaxe amaitu zen, hain zuzen, lehen zatia, 1-3koarekin.

Bigarren zatian, denetarik

Atsedendia on egin zion Gernikako Beti Arin taldeari eta kantxan hobe kokatu zen hasieratik. Honenbestez, gol aukera gehiago sor-

tu zituen eta, ondorioz, Lakuntzako mutilek falta ugari egin zituzte 5 minututan.

Epailearen lan txarra ere batu zitzaion honi, izan ere, nonbait epaileak ere protagonista izan nahi zuen neurketa honetan eta Villabonako taldearen aurka merezi gabeko hainbat erabaki hartu zituen. Besteak beste, txartelak atera-

zizkien billabonatarrei eta taldea jokalaria bat gutxiagorekin geratu zen, 14 minuturen faltan. Lander Uzkudun kaleratu zuen. Kantxan geratu ziren jokalariek defentsa ona burutu zuten, baina Uzkudun berriz ere kantxara sartzeko 10 segundo geratzen zirenean Beti Arin taldeak bigarren gola egin zuen.

Gol honen ondoren, Lakuntza

ez zen atzean geratu eta gogor ekin zion erasoari, aukera politik sortuz.

Hala, estrategiazko beste jokaldi baten ondorioz Ander Etxeberria laugarren gola igo zuen markagailura.

Gutxi iraun zuen bi golen arteko aldeak, bi minutu berandago Beti Arinek 3-4koa sartu baitzuen, Lakuntzak defentsan eginiko huts egite baten ondorioz.

Markagailua gisa honetan zegoela, epailea berriz ere protagonista bilakatu zen, Oscar Urbano kaleratuz. Hala ere, Beti Arin taldeak ez zuen jokalaria baten kaleratzea aprobetxatu, Lakuntza bikain ari-tu baitzen defentsan. Bi minutuak igarota, Hautsik bosgarrena egin zuen, kontraeraso baten ondoren.

Partidaren amaieran erlaxatu egin ziren

Hautsiren hankatik etorri zen sei-garrena ere. Hiru minutu falta ziren partidaren amaierarako eta guztia erabakita zegoela zirudien. Baina Lakuntzakoak gehiegi erlaxatu ziren eta etxekoek beste bigol egin zituzten. Ez zuten berdinketa lortzeko aukerarik izan eta partida horrelaxe amaitu zen, 5-6koarekin.

Partidaren amaieran, jokalaria nahiz entrenatzailea oso gustura azaldu ziren emaitzarekin. Garaipen honen ondoren, Lakuntza hirugarren da sailkapen orokorrean eta laugarrenarekiko hiru puntu-ko alde lortu du.

Laburrak

PPK udaletxean Espainiako bandera jartzea eskatu du

ZIZURKIL » PPrez zinegotzi Raul Vazquezek Ertzaintzan salatutako berretsi du Tolosako epaitegian. Batetik, epaileak Zizurkilgo udaletxean Espainiako bandera jartzea ahalbidetu deazala, «indarrean dagoen legearen arabera». Bestetik, Zentroko lokalean dauden «pankarta mehatzatzaileak kendu eta horiek jartzen dituztenak identifikatu daitezken» eskatu du.

Bihar, Korrika batzordeak osatzeko bilera, Lizardin

TOLOSA » Korrika 16 Tolosara apirilaren 2an, 10:00ak inguruan iritsiko da. Korrika batzordeak osatzeko bilera egingo du bihar 19:30ean Lizardi kultur elkartearen.

Bilgune Feministak deituta, elkarretaratzea gaur

TOLOSA » Tolosaldeko Bilgune Feministak elkarretaratzea deitu du gaurko, 20:00etan Tolosako Trianguloan, Baionan izan den azken erailketa salatuzko, *Emakumeon aurkako indarkeriari aurre hartu!* Erasonik ez erantzunik gabe! lelopean. Hasiera batean gertakari gisa aurkeztu zen Baionako azken erailketa, etxeak su hartu ondoren bertan zegoen emakumea hil egin zela berri emanez. Ondoren jakin da, sua nahita eragin zuela bere bikotekideak eta ondorioz, espetxean sartu dute heriotza leporatuta. «2009 urteak dagoeneko erailketa bat utzi du Euskal Herrian. Baina emakumeon aurkako beste hainbat eraso ere gertatzen ari dira azken aldiaren gurean».

Jakin. eta egin eta saber hacer
HERRIA PAÍS

Nazioarte mailako adituak. Etxeak lan bilera mundu osoan. 30 herrialdeetako esperientziak. 3.000 baino pertsona gehiago.
Lan gogorra egin dugu Euskadi nazioarteko aitzindari ekonomikoaren artean kokatzeko.

Euskadiren etorkizuna aurkezteko dizugu:
THINK GAUR EUSKADI 2020 HAUSNARKETAREN EMAITZAK.
IGANDEA, URTARRILAREN 25A.
11:30AN EUSKALDUNA JAUREGIMO AUDITORIUMA, BILBAO.

www.thinkgaureuskadi2020.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Aduna.** Asvinienea Kultur Elkar-
teak III. Poltsikoko Antzerki Lehia-
keta antolatatu du profesional zein
amateurrentzat. Informazioa eta
izen-ematea, www.asvinienea.com
webgunean.
■ **Amezketak.** Amezketako ikasto-
lan ibili zirenak elkartzeko asmoa
dago, andereño izan ziren Maritxu,
Joxepi eta Kororekin Behartzana
jaketxean bazkari bat eginez. Har-
rremanetan jartzeko: 943 65 05
99 (Arantxa), 669 47 94 93 (Jo-
seba), 943 24 00 21 (Itxaso) tele-
fono zenbakietan.
■ **Ibarra.** Hilaren 23an 18:00etan
Belabieta kiroldegian izango den
Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen
Piratak ikuskizunerako sarrerak
salgai jarri dituzte 6 eurotan Iba-
rrako Zubiaurre Tabernan, Lurdes
dendan, Errotaxon, Uzturpe Ikas-

tolan eta Tolosako Zurbeltz disko
dendan.
■ **Irura.** Bihar, 19:00etan udaletxe-
an Festa Batzordeko bileran pasa-
tu berri diren Eguberrien balantzea
egingo dute; otsailaren 13an egin-
go diren kaldereroen inguruan hitz
egin eta urteko kultur-ekitaldien
egitaraua aztertzea izango da.
■ **Tolosa.** Veleta-Aiz Orratz elkar-
teak 75 urte beteko ditu aurtan.
Argazki zahar eta berrien erakus-
keta ari da prestatzen eta horreta-
rako materiala biltzen ari dira. Baz-
kideek, bazkide ohiek eta zerbitu
dutenek, elkartera eramane deza-
kete. Informazioa 655 738739 tele-
fono zenbakian.
■ **Tolosa.** Inauterietarako karroza
eta konpartsetan izena eman dai-
teke Kultur Etxen 10:00etatik
13:00etara eta 17:00etatik
19:00etara.

■ **Tolosa.** Bihar, Korrika 16 Tolosa-
ra apirilaren 2an, 10:00ak ingu-
ruan iritsiko da. Korrika batzorde-
ak osatzeko bilerak 19:30ean Lizar-
di kultur elkarteak.
■ **Tolosa.** Bihar, Tolosako Orfeoia-
ren asanblada Kultur Etxean
20:15ean.
■ **Tolosa.** Sahararen aldeko Euskal
Karabana, *Piztu Itxaropena* lelopean.
Eskualdean, Tolosaldea Saha-
rarekin elkarrekin ari da aurrera era-
maten janari bilketa: arroza, leka-
leak, pasta, hegaluzea oliotan,
sardinak oliotan, azukrea eta kon-
presak. Urtarrilaren 31ra arte bil-
duko dute.
Zinema
■ **Tolosa.** Bihar, *Rios y mareas* filma
emango dute Leidor aretoan
19:15ean eta 21:45ean, zine-foru-
mean.

Kirola

■ **Alegia.** Iganderako Aralarra
mendi irteera antolatatu du Alegia-
ko Mendi Asanbladak, Txindokiko
zirkuitoa egingo dute.
■ **Tolosa.** Collarada eta Pic de
Moinesera irteera antolatatu du
Oargi mendi elkarteak hilaren
23tik 25era. Informazioa eta izen-
ematea, 943 675612, 688
698642 eta www.oargi.org helbi-
dean.
■ **Villabona.** Villabona - Zubietak
goizeko mendi irteera antolatatu du
Aizkari mendi elkarteak 25erako.
Informazioa, www.aizkardi.com
helbidean.
Erakusketak
■ **Alegia.** Marce Tenaren
begiei buruzko margolanak ikus-
gai asteartetik igandera bitarte Ju-
bilatuaren tabernan. Bizi-biziki eta

denetan begia da jorratzen duen
gaia.
■ **Tolosa.** Ana Jesus Ansorena to-
losarraren buztin egosi artelanak
ikusgai Lanbroa tabernan.
■ **Tolosa.** Jose Enrique Ceberioaren
olio-lanak eta akuarelak ikus dai-
tezteke Itaie tabernan.
■ **Tolosa.** Juan Jose Agirre tolosa-
rraren margolan erakusketa Aran-
buru Jauregian.
» **GUARDIAKO FARMAZIAK**
■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea,
10. 943 676013.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia,
5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutilloa, A.M. San
Martin, 5. 112.
HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkariaren adierazitako esanen
eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Oihan (Albiztur). Gaur 4 urte.
Muxu potoloak Ainhitze eta
Mikelen partetik.



Urte askoan!

Lorena Elola Leo (Tolosa). Gaur
8 urte. Zorionak eta muxuak.
Maddi eta familiaren partetik.



Urte askoan!

Mikaela Zabala Goñi (Txarama).
Gaur 87 urte. Zorionak eta
muxuak familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaloberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko
leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

LIBURUA SALGAI

Salmenta:
Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140 €
-----------------	--------------------

Salmenta puntuak:
• Galtzaundi eta
Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko
Hitzako bulegoetan,
• Tolosako Aranburu,
Babel eta Elkar
liburudendetan,
• Ibarako Lurdes
liburudendan,
• Villabonako Basajeun
liburudendan.



1936KO GERRAKO
OROITZAPENAK
Tolosaldean eta Leitzaaldean

ARANZADI
galtzaundi

hitza